



KULTURA ETXEA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

Momentuz liburutegia (mailegu zerbitzua eta kopiak) bilera gela (herriko talde soziokulturalentzat) eta areto nagusia erabili daitezke. Honako hauek dira jarraibideak eta erabiltzeko baldintzak:

Edozeinek edozein sintoma duela uste badu edota berarekin harreman zuzena izan duen familiar edota lagunaren batek positiboa eman badu, eman abisua osasun zerbitzuetan eta kasu egin jarraibideei.

Gomendioak:

- Eskuak sarritan garbitu, batez ere gauzak elkar banatzen ditugunean. Horretarako langile bakoitzak gel hidro-alkoholiko bote bat izango dugu, lanerako eta lanean, norberarena izango dena. Gel-a amaitzen bazaizue udaletxean eskatu.
- Zuen lan ingurua ondo aireztatuta izan osasun gomendioei kasu eginez.

Langileon jardunerako neurriak:

1,5 metro



- Gure arteko hartu emanetan:
 - o Distantziak mantendu.
 - o Ezinezkoa denean, maskara jantzi.
- Aurretik eta ostean desinfektatu beharko dira mahaia eta aulkia eta manpara. Horretarako papera eta desinfektatzailea liburutegian egongo da

Maskarilen erabileran inquruko araudia:

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak beharrezko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgentek ezartzen ditu, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko, bai eta berragerraldiei aurrea hartzeko ere, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren III. fasea gainditzeko.

Zehazki, honako hau jasotzen du:

- Maskarak nahitaez erabiltzea arautzen da sei urtetik gorako pertsonentzat.
- Eremu publikoan, aire zabaleko gunetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan maskarak erabili beharko dira, baldin eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia gutxienez 1,5 metrokoa dela bermatu ezin bada.
- Aurreko betebeharrak ez zaizkie eskatuko maskararen erabilerak larritu dezakeen eritasun edo arnasteko zailtasunen bat duten pertsoneri, edo, ezgaitasun edo mendekotasun egoera dela-eta, maskara kentzeko autonomiarik ez dutenei, edo maskararen erabilera bideraezina egiten duten portaera-aldaketak dituztenei.
- Maskarak erabiltzeko betebeharra ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da, eta ehun euro arteko isunarekin zigortuko da.



Jendeari arreta zuzena emateko:

- Alkohol hidrologiko dosifikatzaile finko bat eta bere "eskuak garbitu" kartelak jarriko da erabiltzaileentzako sarreran.
- **Kultur-etxean baimenduta dagoen edozein ekintza edo aukerentzako, BETI, sartzeko eta irtetzeko maskara edo musukoa erabiliko da.**
- Liburutegian jendea egon ostean panela garbitzeko desinfektatzailea eta papera egongo da. Bertako langileak izango du ardura pertsona bat atenditu ostean panela garbitzeko



OHARRA: bote hau husten baldin bada berriro betetzeko bidoiak udaletxean egongo dira.

Liburutegira erabiltzaileen sartu irteerak:

- Arreta zuzeneko orduak: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 17:00-19:00 eta astearte eta ostegunetan 11:00-13:00
- Liburutegia liburuen mailegurako zabalduko da. Eta zerbitzu hauek ere emango dira:
 - o Liburutegian **kopiak** edo orriak **inprimatu** egin ahal izango dira.
 - o 3 ordenagailutik 2 erabili ahal izango dira, segurtasun distantziak mantenduz. Eta erabilera bakoitzaren ostean osasun neurri bezala izango duten film transparentea aldatuko du arduradunak.
 - o Bertako mahaiak erabilgarri egongo dira ikasteko edo irakurtzeko, betiere arduradunak esaten dituen 12 lekuak, zeintzuk segurtasun distantziak mantenduko dituzten. Erabilera bakoitzaren ostean arduradunak erabilitako lekua desinfektatuko du.
- Posiblea bada, liburuak alde zuzenetik eskatu emailaz (kulturetxea@aramaio.eus) edo telefonoz (945445374).
- Liburua gordetzeko poltsa ekarri
- Sarrerako atea ZABALIK egongo da
- Kultura etxera sartzeko maskara jarri
- Sarrera-irteeretan eskuak garbitu. Sarreran dosifikatzailea eta dagokion kartela egongo da.
- Posiblea bada, bakarrik etorri. Adin txikikoak eta menpekoak bakarrik etor daitezke pertsona batekin batera.
- Eskailerak erabili. Igogailua behar izatekotan, banan-banan erabili.
- Ezin izango da liburuen apaletara joan.
- Liburutegiko arduradunak esaten duenari kasu egin



- Pertsonen arteko distantzia zaindu: 1,5 m.
- Araudiak zehazten duena jarraituta, liburuak entregatu ondoren, 7 egunez egon beharko dira geldirik, hurrengoak berriz maileguan jaso arte.
- Komunak itxita egongo dira erabiltzaileentzat, larrialdi bat ez bada behintzat. Eta hori emango balitz ostean arduradunak komuna desinfektatu beharko luke.

Herriko taldeentzako zerbitzua:

- Arreta zuzeneko orduak: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 17:00-19:00 eta astearte eta ostegunetan 11:00-13:00
- Kultura etxera sartzeko maskara jarri
- Talderen batek bere gelatik materialen bat behar badu, kultura etxeko arduradunarekin geratu, maskara erabili eta arduradunarekin batera hartzeko aukera izango du.
- Arduradunaren irizpideak jarraitu.
- Bileretarako gela bat (ingelesko gela handia) eskainiko da ere, betiere:
 - o Kultura etxeko arduradunarekin adostu
 - o Egunean talde bakar batek erabili ahal izango du
 - o Bilera gelan elkarren arteko 2 metrotako distantzia mantendu beharko da
 - o Gehienez ere 8 pertsona elkartu ahal izango dira.
 - o Gela erabili eta gero desinfektatuko da
- Arduradunarekin harremanetan jartzeko bi aukera daude, emailaz (kulturetxea@aramaio.eus) edo telefonoz (945445374).
- Sarrera-irteeretan eskuak garbitu. Sarreran dosifikatzailea eta dagokion kartela egongo da.
- Eskailerak erabili. Igogailua behar izatekotan, banan-banan erabili, maskara jarrita.
- Komunak itxita egongo dira erabiltzaileentzat, larrialdi bat ez bada behintzat. Eta hori emango balitz ostean arduradunak komuna desinfektatu beharko luke.
- Bilera gela hau erabiltzen denean, garbitasuneko arduradunari jakinarazi beharko dio kultur-etxeko arduradunak, honek aretoa eta erabilitako materiala garbitu eta desinfektatzeko.

Areto nagusiaren erabilera

- Areto nagusia erabiltzea nahi duenak, beti bezala, eskaera egin beharko du udaletxean.
- Aretoa erabiltzeko baimena duenak sarrera eta irteerak gainerako ekintzetan bezala, maskarekin egin beharko dira.
- **Aretoaren aforoa:**
 - o Maskara gabe egoteko: 32 pertsona gehienez. Tarteko ilara libre utziko da eta zintarekin markatuko dira erabili ezin diren aulkiak.
 - o Maskara jantzita uneoro: 59 pertsona gehienez. Tarteko ilara libre utziko da eta zintarekin markatuko dira erabili ezin diren aulkiak.
- Eszenatokian egoteko segurtasun distantziak mantendu beharko dira edo bestela maskara erabili beharko da.
- Aretoa erabiltzen denean, garbitasuneko arduradunari jakinarazi beharko dio kultur-etxeko arduradunak, honek aretoa eta erabilitako materiala garbitu eta desinfektatzeko.



Gainerako gelen erabilera:

- Herriko taldeen jarduna aurretik aipatutako neurriekin egingo da kultur-etxean.
- Klaseren bat eman nahi baldin bada kultur-etxean, udaletxean baimena eskatu behar da eta ordutegia eta jarduteko erak adostuko dira Udala, Kultur-etxeko arduradunak eta eskatzaileen artean.
- Sarrera eta irteerentzako maskarak erabili beharko dira.
- **Dagokion ekintza edo klasea ematen denean, segurtasun distantziak bermatzen ez diren kasu guztietan maskara erabiliko da.**
- Egunean behin, talde/erabiltzaile bakarrak bakarrik erabili ahal izango du gela.
- Gelaren erabilerak, orduak eta egunak, kultur-etxeko arduradunak, garbitasun arduradunari jakinarazi beharko dizkio, ostean propio desinfectatu/garbitu ditzan.
- Komuna ezin da erabili, ezinbestekoa ez bada, eta ezinbestekoa den kasuetan, erabili ostean desinfectatu beharko da. Horren ardura izango du erabiltzaile bakoitzak eta horretarako izango da bertan desinfectatzailea eta papera.

Aramaion, 2020ko ekainaren 15ean.